

IRAGARKIA

Udalbatzak, abenduaren 22an eginiko Osoko Bilkuran, hasiera batez onartu du 2021 urterako Aurrekontu Orokorren espedientea, honako erakunde hauetako aurrekontuekin osatua: Hernaniko Udala, "Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak" erakunde autonomoa eta "Ereñotzu" Toki Entitate Txikia.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 15.1 artikuluan xedatutakoa betez, Aurrekontua jendeari erakusten zaio, ondorengo arau hauen arabera:

- Erakutsita dagoen lekua: Kontu-hartzailletzan.
- Aurrekontua aztertzeke eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteke epea: hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita.
- Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak: 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikuluan aipatzen diren interesatuek eta erabakiaren aurka bozkatu duten korporaziokideek.
- Inpugnatzeko arrazoiak: Aipaturiko Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak, eta ordenamendu juridikoa urratzea.
- Aurkezteke bulegoa: HHZ-Herritarren Harrera Zerbitzua, eta 39/2015 Legeak, Administraziozko Prozedurari buruzkoak, bere 16.4 artikuluan xedatzen dituen gainontzekoak.
- Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epean inolako erreklamazio edo oharpenik jasotzen ez bada, Aurrekontu Orokorra behin betiko onartutzat joko dira, beste erabakirik hartu behar izan gabe.
Hernani, 2020ko abenduaren 23an. – Xabier Lertxundi Asteasuinzarra, alkatea